



Aurrez aurreko zerbitzuak

Liburutegiko aretoan eskainitako zerbitzuak (Administrazio-etxean)



Kontsulta aretoan

Liburutegiako irakurketa-aretoan honako zerbitzu hauek eskaintzen dira:

- Aretoa irakurtzea
- Kontsulta eta argibide bibliografikoak jasotzea
- Funts bibliografikoak eta dokumentalak kontsultatzea
- Hemerotetka: egunkariak eta aldizkariak
- Katalogoa eta liburutegiko beste datu-baseak kontsultatzea
- Dokumentuak erreproduzitzea



Kontsulta aretoko zerbitzuak erabili ahal izango dute legebiltzarkideek, legebiltzar-taldeetako langileek eta Legebiltzarreko langileek. Hauetaz gain, beste erakunde batzuetako langileek, Ganberako prentsa akreditatuak eta baimendutako ikertzaile erabiltzeko aukera dute.

Mailegua

Mailegutik kanpo dauden bildumak

Erreferentziako eta oinarriko kontsultarako lanak, prentsa eta aldizkako argitalpenak, eta funts bereziak: Bolivar bilduma, garrantzi bereziko lan batzuk, argitalpen agortuak, eta 50 urte baino gehiagokoak.

Epeak

Maileguak, gehienez ere, 30 egun irauten du. Epe hori amaitzen denean, mailegua berritza eskatu ahal izango da baldin eta lan hori beste erabiltzaile batek eskatua ez badu. Ezin da aldi berean 10 lan baino gehiago hartzea maileguan.



Mailegu-zerbitzua erabili ahal izango dute legebiltzarkideek, legebiltzar-taldeetako langileek eta Legebiltzarreko langileek.



Zerbitzu digitalak

 Eskuragarri Legebiltzarreko erabiltzaileentzat 

Dokumentuak eskuratzea

Dokumentuak eskuratzeko zerbitzuaren (DLZ) bitartez, liburutegiak:

- Liburutegiaren funtsa osatzen duten argitalpenetako artikuluen eta kolaborazioen **kopia elektronikoa** ematen du.
- Legebiltzarreko erabiltzaileek **Dialnet**-en eta haren informazio-alerten bidez eskatzen dituzten artikulua eta dokumentuak eskaintzen ditu.
- *Liburutegien Arteko Maileguaren* bidez, gure **liburutegian ez dauden dokumentuak** aurkitzen eta lortzen ditu, eta, era berean, beste liburutegi eta instituzio batzuek beren funtsetan ez daukaten dokumentuez hornitzen ditu, soil-soilik ikerketa- eta azterketa-xedeetarako.

Nola eskatu artikulua eta dokumentuak

- ⇒ posta elektronikoaren bidez: dokumentazioa@legebiltzarra.eus
- ⇒ Dialnet-etik (erregistratuta egon behar da)

Informazio-zerbitzua

Azterlanen Zuzendaritzak, kontsultei eta informazio- eta dokumentazio-**eskariei erantzuteko zerbitzuaren bitartez**, legebiltzarkideen eta Ganberako zerbitzu guztietako langileen jarduera parlamentario zein administratiboarekin zerikusia duten informazio- eta dokumentazio-beharrizanei erantzuten die.

Eskariaren arabera, **erantzunak askotarikoak** izan daitezke:

- datu, artikulua edo dokumentu jakinak,
- gai zehatz bati buruzko dokumentazio-oharrak
- edota lege ekimenen inguruko dossier mamitsuak.

Nola eskatu informazioa

- ⇒ posta elektronikoaren bidez: dokumentazioa@legebiltzarra.eus



Desiderata – Erosketa proposamenak

Erabiltzaileek **liburutegiari lagundu diezaioke** interesgarritzat jotzen dituzten eta katalogo bibliografikoan ez dauden **argitalpenak proposatzu**.



Liburutegiak, daukan **eskuratzeko politika** kontuan hartuz, eskaera aztertuko du eta ontzat eman ez gero, proposatutako argitalpenak liburutegiaren funtsatsetara pasatuko da.

Nola proposatu erosketa bat

⇒ **posta elektronikoaren bidez:** dokumentazioa@legebiltzarra.eus

Hedapen selektiboa: Alerta harpidetza

Informazio-alertak jasotzeko harpidetu ahal da; horrela, hainbat gairi buruzko informazio eguneratua **posta elektronikoz** jasoko da: gai parlamentarioak, bibliografia eta nobedade dokumentalak.



- [Infoberririk](#). Azterlanen Zuzendaritzak astero prestatzen duen aktualitate dokumentaleko berripapera.
- [Zabalik](#). Doako sistema bat da, astero Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzen diren gai buruzko informazioa Internet bidez jasotzeko
- [Dialnet-ren alerta bibliografikoak](#). Aldizkari espezializatuetan harpidetzeko aukera ematen dute, datu-basean zenbaki berri bat sartzen den aldiro alerta bat jasotzeko.
- [Blog Aztelanak.dok](#). Sarrera berrien alertak bi moduz jaso daitezke: posta elektronikoaren bidez edota Whatsapp-en bidez.



Nola egin harpidetzak

⇒ **kasuan kasuko harpidetza-formularioen bidez:**
Infoberririk, Zabalik, Dialnet, Bloga

⇒ **Whatsappeko zerbitzuan alta eskatuz** estudios@legebiltzarra.eus helbidean